



**2022KO OTSAILAREN 7KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zhogeita biko otsailaren zazpian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Maialen Amundarain Irizar.

Joxemai Ormazabal Sukia zinegotziak bere ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2021eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 83 zk.dun fakturen zerrenda, SEI MILA ETA BERROGEITA HAMASEI euro ETA LAUROGEITA LAU zentimokoa (6.056,84€) eta 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 3 zk.dun zerrenda, HOGETA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA HIRU euro ETA HIRUROGEITA BAT zentimokoa (32.303,61€), bere espedientean daudenak, onartzea erabaki da.

III.- 2021EKO EKARPEN OSAGARRIA SASIETA MANKOMUNITATEARI.-

Sasieta Mankomunitateak, bere lehendakariak egindako urtarrilaren 21eko 01/2022 ebazpena jakinarazi dio udal honi. Ebazpen horretan mankomunitatea osatzen duten udalerriek egin beharreko 2021eko ekarpen osagarriak onartu dira.

Ebazpen horretan onartutakoaren arabera, Lazkaoko herriari HIRU MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU euro ETA BERROGEITA ZORTZI zentimoko (3.393,48 €) ekarpena egitea dagokio, 2021eko ekarpen osagarri gisa.

Hau honela, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, Sasieta Mankomunitateari egin beharreko 2021eko ekarpen osagarri hau onartzea erabaki du.

IV.- 2022KO EKARPENA GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOARI.-

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak bertan dauden udalerriek egin beharreko 2022ko ekarpenen zehaztasuna bidali du. Bertan adierazten da ekarpen horiek eskolako inbertsioetarako eta LHko (Lanbide Hezkuntza) gastuetatik udalei dagokion zatiari aurre egiteko direla, eta baita ere esaten da ekarpen hauek biztanle kopuruaren arabera banatzen direla.

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak bidalitako zehaztasunaren arabera Lazkaoko Udalari 2022 urtean 44.817,00 € ekarpena dagokio.

Hau honela, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioari 2022 urtean egin beharreko **BERROGEITA LAU MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAHAZPI** euroko (44.817,00 €) ekarpena onartzea erabaki du.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak diru laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:

- Suthai taldeari.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu den hitzarmenean talde honentzako, egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusitako 3.000 €ko diru laguntzaren %60, hau da, 1.800 € ematea.

Diru laguntza 2022ko aurrekontuaren 481.01.334.00 partidatik ordainduko da.

VI.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara eta hezkuntza batzordeak, euskara ikasten ari diren lazkaotarrei diru laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak honako hau erabaki du:

2021/2022 ikasturtean euskara ikasten hasi diren ikasleei diru laguntzaren lehenengo zatia ordainketa egitea. Kasu honetan ikasle bat da, bere espedientean dagoena, eta ematen zaion zenbatekoa 560 €.

Diru laguntza 2021eko aurrekontuaren 480.01.335.00 partidatik ordainduko da.

VII.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK .-

Jarduera Ekonomikoko batzordeak diru laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak diru laguntza hauek onartzea erabaki du:

- Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako 2021eko gabonetan burututako erakusleihen lehiaketaren kanpainaren barruan, parte hartu duten hainbat merkatariri beraien saltokietan jaso eta ekarri dituzten bonuen arabera diru laguntza hauek ematea:

Merkataria	Zenbatekoa
ARANTZAZU FERNANDEZ (GAZI-GOZO)	50 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	150 €
GARAZI ZUFIRIA INSAUSTI	20 €
GUZTIRA	220 €



Diru laguntza 2021eko aurrekontuaren 471.01.430.00 partidatik ordainduko da.



LAZKAOKO
UDALA

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hamazazpi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA